

Elezahar biziak “BBK Masters At Work” zikloaren aldi berrian

- **John Scofield, Esperanza Spalding, Larry Carlton, Robben Ford eta Kenny Garret zikloari elkartu zaizkio, izan ere dagoeneko ekin baitzaio urte-saio berriari Chucho Valdés-en jardunarekin.**

Bilbon, 2010ko urriaren 05a. Jakituria, esperientzia eta taulak eszenatokiaren gainera. “BBK Masters at Work” zikloak hainbat musika-maisu ospetsuren lau kontzertu berri baiesten dizkigu. BBK Salako oholtzan jardungo dute horiek 2012ko urtearen amaiera arteko aldi honetan.

John Scofield urriaren 22an etorriko zaigu Bilbora, bere ohiko nahasketarekin: R&B, soul, rock&roll eta Jazz handia. Scofield-ek jazzaren munduko maisurik handienetako batzuekin jardun izan du, esate baterako, Miles Davis edo Herbie Hancock-ekin. Steve Swallow baxu-jotzailea eta Bill Stewart perkusionista lagun dituela etorriko da Bilbora.

Portlandetik BBK Salara, urriaren 30ean etorriko zaigu Esperanza Spalding. Bera izan zen Urteko Artista Errebelazioari ematen zaion Grammy bat irabaztea lortu zuen lehenbiziko jazz-interpretorea. Baxu-jotzaile, kantari eta konpositore gisa, entzuleria hipnotizatzen moduko tresna-abileziaren eta ahotsaren jabe da Spalding anderea, eta jazzaren eta musika instrumentalaren etorkizuneko itxaropentzat jotzen du gaur egun batek baino gehiagok.

‘With A Little Help From My Friends’ izan zen Larry Carlton-en lehenbiziko singlea. Abesti mitiko hori entzun ahal izango da BBK Salan ere datorren azaroaren 1ean. Carlton-en doinu gozo eta punteaketa beroek Bilbo blaitzeko aukera izango dute sei hariko musikan maisu eta lau Grammy-ren irabazle den artista honen eskutik.

Eta azaroaren 8an, Robben Ford. Bere bluesen izaera paregabearengatik eta musika-testuinguru asko eta askotan malgua izateko duen gaitasunagatik ezagutzen den kaliforniar hau, bost aldiz izendatua izan da Grammy sarietarako, eta Joni Mitchell, Miles Davis, George Harrison, Phil Lesh, Bob Dylan, John Mayall eta Greg Allman-en mailako artistekin jo izan du.

Aurtengo 2012ko zikloari Kenny Garret-ek emango dio amaiera. Saxofonista eta flauta-jole eztaba daezin hau Duke Ellington orkestrako eta Miles Davis bandako partaide izan zen. Izan ere, ondo irabazi dauka Milesen seme musikal kuttuna izanaren ospea. Ugariak izan dira Garret-ek grabatutako diskoak mende amaierako jazz-jole entzutetsuenen laguntzaile eta lider gisa parte hartuz.



prentsa-oharra

Sarrerak zerbitzu anitzeko kutxazainetan eskura daitezke, ww.bbk.es webgunean, edota, 944-310310 telefono-zenbakira deituz. Deskontu bereziak BBK txartelen titularrentzat.